

## LITERAKTUM TXIKIA ILUSTRAZIO LEHIAKETA OINARRIAK

Ilustrazio lehiaketak haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea du helburu.

Haurrek Ibon Martínek idatzi eta Emmanuel Montielek ilustratutako *Onin* izeneko bilduman oinarritu behar dute euren lana.

### 1-PARTE HARTZAILEAK

- 1.1.- Lehen Hezkuntza 1-6 mailako haurrak parte hartu ahalko dute.
- 1.2.- Banaka parte hartu behar da .

### 2.- KATEGORIA

- 2.1.- Honako hiru kategoria hauek definitu dira parte-hartzaileen adinaren arabera:
  - Lehen hezkuntzako 1-2 mailakoak.
  - Lehen hezkuntzako 3-4 mailakoak.
  - Lehen hezkuntzako 5-6 mailakoak.

### 3.- LANEN EZAUGARRIAK

- 3.1.- Marrazkiak argitaratu gabeak izango dira, eta, nahitaez, *Onin* pertsonaia literarioari buruzkoak.
- 3.2.- Edozein margo teknika erabili ahalko da: akuarela, olio, argizaria, ikatz-ziria, tinta, collagea eta abar.
- 3.3.- Marrazkiak Donostia Kulturak eskura jarritako DIN A4 inprimakian aurkeztu behar dira derrigorrez.
- 3.4.- Lanek argi eta garbi identifikatuta egon beharko dute, letra irakurgarrian izen-abizenak, ikasturtea, ikastetxea eta arduradunaren edo tutorearen telefono zenbakia eta e-maila.
- 3.5.- Haur bakoitzak lan bakarria aurkeztuko ahalko du.
- 3.6.- Liburuko ilustrazioen kopia lehiaketatik kanpo geratuko dira.

### 4.- AURKEZPENA

- 4.1.- Lanak, Donostiako Haur Liburutegi Nagusian eta kultur etxeetako liburutegietan aurkeztuko dira.  
<https://www.donostiakultura.eus/eu/liburutegiak/zatoz-ezagutu/helbideak-ordutegiak>
- 4.2.- Marrazkiak aurkezteko epea, 2023ko urriaren 30ean hasi eta azaroaren 14an amaituko da.

## 5. EPAIMAHAIA

5.1.- Epaimahaia haur eta gazte literaturan adituek osatuko dute. Kultur etxeetako liburuzainek ere aurre hautaketa egin ahalko dute.

## 6. LANEN BALORAZIOA

6.1.- Lanen balorazioan, epaimahaiak kontuan hartuko ditu lanen kalitatea, irudimena, planteamenduaren originaltasuna eta edizio honetarako proposatutako gaiarekin duen lotura.

## 7.- SARIAK

7.1.- Epaimahaiak lan adierazgarrienak aukeratuko ditu, eta ezarritako kategoria bakoitzeko, hiru hoberenak sarituko ditu.

7.2.- Epaimahaiak lan irabazletzat hautatutako lanek opari hauek jasoko dituzte:

- Diploma.
- 30 €ko erosketa txartela liburuak erosteko.
- Idazleak sinatutako *Oninen* liburua.

## 8.- SARI BANAKETA

8.1.- Sariak 2023ko azaroaren 24an emango dira, Udal Liburutegiko San Jerónimo Aretoan (San Jerónimo kalea, 18) .

8.2.- Irabazleei sari-emate ekitaldiaren aurretik jakinaraziko zaie.

8.3.- Marrazki irabazleak ikusgai egongo dira Dk On! Ilustrazioak webgunean <https://www.flickr.com/photos/dketxeankoaderno/albums/>

eta 2023ko azaroaren 27tik 2024ko urtarrilaren 8ra, Donostiako Haur Liburutegi Nagusian (Fermín Calbetón kalea, 25).

8.4.- Lanak ez dira itzuliko.

8.5.- Bederatzi sari banatuko dira, hiru kategoria bakoitzeko. Diploma, *Oninen* liburua sinatuta eta 30 € ko opari txartela.

## 9.- LANEN USTIAKETA ESKUBIDEAK ETA OINARRI HAUETAN XEDATUTAKOAREN ONARTZEA

9.1.- Hautatutako eta saritutako lanen ustiaketa eskubideak doan lagako zaizkio Donostia Kulturari. Eskubide horiek barne dituzte erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa, eraldaketa eta egokitzapena.

9.2.- Epaimahaiak eta antolatzaileek oinarri hauetan aurreikusi ez diren egoerak ebatzi ahalko dituzte, hauen interpretazioaren inguruan ager litezkeen zalantzak argitzeaz gain.

9.3.- Lehiaketan parte hartzeak arauen onarpena dakar.

## 10.- IRUDIEN GAINEN ESKUBIDEAK

10.1.- Sariak entregatzeko ekitaldian, antolatzaileek argazki bat aterako diete saritutako pertsona guztiei batera, antolatzaileen komunikabideen bitartez hedatzeko xedearekin. Sariak entregatzeko ekitaldira hurbiltzen diren pertsonak antolatzaileei baimena eman dietela ulertuko da beren izena edo ezizena eta taldeko argazkia Interneten, gizarte sareetan edo bestelako komunikabideetan argitaratzeko.

10.2.- Sariak entregatzeko ekitaldian parte hartzailearen batek taldeko argazkian agertu nahi ez badu, berariaz adierazi beharko du alde aurretik, adingabearen guraso edo tutorearen bitartez.

10.3.- Sariak entregatzeko ekitaldira bertaraten diren pertsonak errespeturik handiena eskatuko zaie eskubide honen inguruan, hortaz, ateratzen dituzten argazki eta bideoak, eta hauen erabilera pertsona hauen erantzukizunpekoak izango dira soilik.

10.4.- Hori guztia, 1/1982 Lege Organikoak, maiatzaren 5ekoak, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoak xedatzen duenaren arabera arautuko da.

## 11.- DATU PERTSONALEN BABESA

Jarraian ageri diren klausulak 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen

babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak xedatutakoaren arabera garatu dira.

11.1.- Parte-hartzaileek erregistrarako ematen dituzten datuek egiazkoak eta osatuak izan beharko dute. Hala ez bada, antolakuntzak eskubidea izango du haiek ez erregistratzeko eta ezabatzeko.

11.2.- Aipatu Erregelamenduaren 6.1. eta 7. artikuluen arabera, parte hartzaileekin batera ulertuko da baimena eman dela lagatako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean gordetzeko eta datu horiek Donostiako Udalaren hezkuntza programa honen kudeaketarako eskusiboan erabili eta tratatzeko.

11.3.- Erregelamenduaren 6.1. artikuluen arabera, helarazitako datuak Donostia Kulturaren titulartasunekoak den fitxategi batean gordeko dira datuen tratamendurako.

11.4.- 14 urtetik beherako kasuan, parte-hartzaile hauek aurkezten dituen pertsonak datuen tratamendu honetarako baimena jaso beharko du adingabearen legezko ordezkariarengandik (gurasoa edo tutorea) eta, halaber, oinarri hauetan xedatutakoa jakinarazi beharko dio legezko ordezkariari.

11.5.- Lan bat aurkeztearen ondorioz antolatzaileek eskubidea izango dute lana jendaurrean azaltzeko erakusketa baten bitartez eta lanaren datuak bertan adierazteko (izen-abizenak eta jatorria).